

Kantu-jira kalez kale


Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.
Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Kantu liburuxka beharrezkoa da. NOAUA:ren egoitzan eros daiteke. Zatoz eta gozatu kantuan.



Liburu aurkezpen-tailerra: Yolanda Arrieta Malaxetxebarriak

Antolatzailea: Udal liburutegia.
Izen-ematea: Sutegi Liburutegian. Plaza mugatuak.
Norentzat: 8-10 urteko haurrak eta euren gurasoak.
Iraupena: ordu bate inguru.

Yolanda Arrieta bidelagun izango dugu. Mintzagai izango dugun liburua: Gutunak birramonari. Yolanda Arrieta berarena. Liburuak jada eskuragarri ditugu Liburutegian.




ERAKUSKETA

"ZUMETAREN USURBIL"

ERAKUSKETA

Apirilak 12- 28

Antolatzaileak: Zumeta Arte Estudioa, 650 Usurbil Bizi eta Usurbilgo Udala.
Sutegiko erakustaretoan (Irazu kalea 14)
Astelehenetan: 17:00-20:00
Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak eta igandeak: 11:30-14:00 eta 17:00-20:00



Zumetaren muralaren 50. Urteurrenari amaiera emateko, aurtan, "Zumetaren Usurbil" erakusketa ikusgai izango dugu, bere herriari erreferentzia egiten dioten artelaren bilduma.

IKASTAROA

SENDABELARRAK EZAGUTU ETA BILDU

Noiz: Apirilak 20, larunbata · **Ordua:** 10:00-12:00
Non: Txokoalden
Izen ematea: kopuru mugatua. 12 pertsona.
619591849 telefonora deitu 17:00-19:00 bitartean
Antolatzailea: Txokorgi Kultur elkarte



GAZTELEKUA



Apirilak 4, osteguna Irrisarriland-era irteera, DBH 2 eta 3.
Apirilak 5, ostirala Sendaviva-ra irteera, DBH 1.
Informazio gehiagorako: gaztelekuausurbil@gmail.com helbidera idatzi edo 688 713838 telefonora deitu.

USURBIL MUSEO IREKIA

BISITA GIDATUAK

Usurbil beti izan da Euskal Herriko kultur-gune erreferentzialetako bat eta bere lekua irabazi du Euskal Herriko kulturaren mapan. Usurbilera baldin bazatoz, bere kaleetan murgiltzea eta paseatzea nahikoa izango duzu edonora begiratu eta artelan bat aurkitzeko.

Bisita gidatu hauen datetan "Zumetaren Usurbil" erakusketa ikusgai egongo denez, ibilbidea erakustaretoan amaituko da. Bertan, Usoa Zumetak Jose Luis Zumetaren lanak azalduko ditu.

Egunak: apirilak 14, 20 eta 28. **Ordua:** 12:00-13:30
Irteera: Sutegi Udal Liburutegitik. **Hizkuntza:** euskaraz.
Gehienezko bisitari kopurua: 14

Prezioa: 18 urtetik gora 3,00€, 18 urtetik behera doan. Eskudirutan ordainduko da bisita gidatua hasi baina lehenago.

Aldez aurretik izena ematea derrigorrezkoa da. Erreserbarik gabe, ezin izango da bisita gidatuan parte hartu.

Izen-ematea <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

650 USURBIL *bizi*

KZ-GUNEKO IKASTAROAK



AURREZ AURREKOAK

OINARRIZKO INTERNETA

· Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi (20 ordu)
Apirilak 8-19 09:00 - 11:00

MEKANOGRAFIA

· Ikasi hutsetik (10 ordu)
Apirilak 22-26 09:00 - 11:00

ON LINE IZAPIDEA

· On line izapidea Osakidetzarekin (4 ordu)
Apirilak 19-30 09:00 - 11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Apirilean Kzgunea: Goizez 09:00-13:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00	● 2 3 4 5 ● ●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	8 9 10 11 12 ● ● ● ● ● ●
Itxita	15 16 17 18 19 ● ● ● ● ● ●
Goizez	22 23 24 25 26 ● ● ● ● ● ●
	29 30

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua

USURBIL KULTURA 2024ko apirila

☺	Ostirala 18:00 Erakustaretoan	"ZUMETAREN USURBIL" ERAKUSKETAREN IREKIERA EKITALDIA	12
🏞️	Larunbata 10:00 Puelan	ANDATZA MENDIKO DEFENTSA-LERROA" IBILBIDE ANTZEZTUA	13
📖	Larunbata 11:30 Potxoenean	LIBURU AURKEZPENA: "CRISALIDA"	13
🎵	Larunbata 12:30 Erroizpen	"THE BEDBREAKERS" MUSIKA AKUSTIKOA	13
📺	Igandea 18:30 Sutegin	XX. LABURBIRA. EUSKARAZKO FILM LABURRAK	14
📖	Astelehena 18:00 Liburutegian	IRAKUR-JOLAS TXOKOA II	15
☺	Ostirala 18:30 Sutegin	GURE PAKEAKO ANTZERKIAK	19
🌿	Larunbata Egun osoko jaia	V. DANTZARI TXIKI EGUNA	20
🏞️	Igandea 10:00 Iruin Sagardotegitik	BERTSO-IBILBIDEA USURBILGO SAGASTIETAN BARRENA	21
🎵	Igandea 17:00 Salbatore Elizan	ORGANO KONTZERTUA. THIERRY ESCAICH	21
📖	Asteartea 19:00 Udal liburutegian	LIBURU AURKEZPEN-SOLASALDIA: XABIER MENDIGURENEN ESKUTIK	23
☺	Osteguna 10:00 Artzabalen	VACHOCA TAILER ARTISTIKOA	25
🌿	Larunbata Egun osoko jaia	XII. DANTZA EGUNA	27
🎵	Larunbata 12:00 Mikel Laboatik	KANTU-JIRA KALEZ KALE	27
📖	Asteartea 18:00 Liburutegian	LIBURU AURKEZPEN-TAILERRA: YOLANDA ARRIETA	30

ERAKUSKETA

ZUMETAREN USURBIL

Apirilak 12-28
Sutegiko erakustaretoan
Astelehenetan: 17:00-20:00
Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak eta eta igandeak: 11:30-14:00 eta 17:00-20:00



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus
Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



USURBIL *Kultura*



Xoxan Artzeren erretratua

APIRILAK 12-28

"Zumetaren Usurbil"

Zumeta

12

Ostirala 18:00 Sutegiko erakustaretoan

"Zumetaren Usurbil" erakusketaren irekiera ekitaldia

Herritar guztiak gonbidatuta daude "Zumetaren Usurbil" erakusketaren irekiera ekitaldira.



13

Larunbata 10:00 Puelan

"Andatza mendiko defentsa-lerroa" ibilbide antzeztua

Antolatzailea: Usurbil 1936 elkarteak.
Izen ematea: usurbilkultura.eus bidez.
09:00 Mikel Laboa plazan (ingurua ezagutzen ez dutenentzat).
10:00 Puelan.

Ibilbidearen helburua Usurbilen eta Andatza mendian 1936ko gerraren inguruan jazotako zenbait gertaeraz—batik bat abuztu bukaera eta iraila erdialdera artekoak—informatzea, testuinguru historikoa azaltzea eta 2022-2023an egindako lan arkeologikoaren ostean berreskuratutako lubakiak erakustea da. Bisitarien taldea era egokian kudeatzeko, parte hartzaileen kopurua mugatua izango da. Bisitariak 12 urtetik gora eduki eta mendian ibiltzeko gai izan beharko dute. Ez dira animaliak onartuko taldean.



13

Larunbata 11:30 Potxoenean

Iñurri Elkarteak, "Crisálida" liburuaren aurkezpena

Antolatzailea: Iñurri elkarteak.
Hizkuntza: gaztelania.
"Iñurri" minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik diharduen elkarteak da.
Oraingo honetan "Crisálida" liburuaren aurkezpena egingo du. Jessica Menchero egilea bera bertan izango da. "Benetako gainditze istorioa. Nire istorioa. Tratu txarrak, minbizia eta zoriontasuna. Dena liburu bakarrean. Dena orrialde batzuetan".



13

Larunbata 12:30 Erroizpe elkarteak

"The Bedbreakers" musika akustikoa

Antolatzailea: Erroizpe elkarteak.



14

Igandea 18:30 Sutegiko auditoriumean

XX. LABURBIRA Euskarazko Film Laburrak

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarteak.
Nori zuzendua: helduei.
Sarrera: doan.
8 film labur ikusgarri, 2024ko Laburbiran. 2024ko LABURBIRAK, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak, 8 film laburrekin osatutako bilduma aparta eskainiko du aurten. Eduki zein estiloz denetariko pelikulekin osatua; gaur egungo euskal zinemagintzaren erakusgarri aparta da film labur sorta hau. Euskal Herri osoan ekoiztutako film laburren bilduma apirilaren 12tik maiatzaren 12ra bitartean eskainiko da. Ondorengo lanak ikusteko aukera izango dugu: DENA ASMATUTA DAGO (Jone Arriola)/KATALINAREN ZORIA (Guillermo Ordás)/ERRO (Amaia Lejarreta)/BABESA (Ander Iruretagoyena)/MUNDU BERRI BAT (Mikel Alvarez)/ZIRRARA (Ane Cuesta)/TALKAK (Ilune Diaz eta Jordi Nuet)/BETIZU BURU (Kim Maiteny Munoa)
Emanaldiaren baitan, zuzendari batekin solasaldia izateko aukera ere izango dugu.



19

Ostirala 18:30 Sutegiko auditoriumean

Gure Pakeak antolatutako antzerkiak

Antolatzailea: Gure Pakea Jubilatuta elkarteak.
Hizkuntza: Gaztelania.
Lau antzerki izango dira: "La fablilla del secreto bien guardado", "El Oso", "Cuando las mujeres juegan al mus" eta "Sinceridad".



APIRILAK 20 ETA 27

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

APIRILAK 20, LARUNBATA V. Dantzari Txiki Eguna

11:30 Kalejiraren hasiera udaletxetik.
13:00 Emanaldia frontoian.
14:00 Dantzarien bazkaria.
16:30 Elizagoien Ahizpekin erromeria.



APIRILAK 27, LARUNBATA XII. Dantza Eguna

12:30 Tranpaldio irekia Olanoeeneko plazan.
14:00 Kantu bazkaria Askatasuna plazan.
17:00 Dantza kalejira.
18:30 "Bamboo Dance" erakustaldia Olanoeeneko plazan.
22:00 BOROBIL ikuskizuna.
Jarraian, Bide Batez erromeria.



*Bazkaritarako tiketak Artzabalen eros daitezke.

21

Igandea 10:00 Iruin sagardotegiko aparkalekutik

Sagastiak loretan. Bertso-ibilaldia Usurbilgo sagastietan barrena

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Izen-ematea: alkartasuna@usurbil.com edo 943 361114.
Sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak adituz eta Jakoba Errekondoren argibideak jasoz.

21

Igandea 17:00 Salvatore Elizan

Organo kontzertua. Thierry Escaich

Antolatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Musikene, Usurbilgo Salvatore Parrokia eta Usurbilgo Udala.
"Gipuzkoako Organoak Plazara 2024" egitarauaren barruan Thierry Escaich-en organo kontzertua izango da. Thierry Rechich konpositore, organista eta inprobisatzailea musika garaikidearen figura paregabea da, eta bere belaunaldiko frantziar konpositore garrantzitsuenetako bat. Genero eta forma askotako obrak sortzen ditu, opera, musika sinfonikoa eta ganberakoak barne.



23

Asteartea 19:00 Sutegi Liburutegian

Liburu aurkezpen-solasaldia: Xabier Mendigurenen eskutik

Antolatzailea: Udal liburutegia.
Idazlea gure artean izango da. Liburuak jada eskuragarri Sutegi Liburutegian. Iraupena: ordu eta laurden
Joxe Arregiren bitziko azken egunak eta hil-ondorenak jasotzen dituen "Oso latza izan da" kronika-literarioa izango dugu mintzagai.



25

Osteguna 10:00-11:30 Artzabal Egoitzan

Vachoca (Vagabundo, chocolate, calcetín) tailer artistikoa

Nori zuzendua: 60 urtetik gorako pertsoneri. Gehienez 15 pertsona
Hizkuntza: elebiduna
Etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat bideratuko da modu praktiko batean. Esperientzia honen bitartez helduak sormenarekin harremanetan jarriko dira. Material desberdinekin esperimentatuz eta jolastuz momentu atsegin bat igaroz. Bakarkako zein taldeko ariketak egingo dira bertan. Proiektuan zehar ezagututako pertsonen egoerak kontatuko dira, elkarriketa eta kontzientzi kritikoa eraikitzailea bultzatuz.
Ekimen hau, Usurbilgo Udalaren sormen dirulaguntza deialdiaren baitan bideratu da.

